

SANTU

EUSKALDUNAK

Epailak 1

LEON DEUNA, GOTZAIN ETA MARTIRIA

Baiona'tar eta bere eliz-barrutiko santu zaindaria da.

Frantzia'ko Normandia lurraldean jaio zan 9'garren gizaldiaren asieran.

Paris'era joan zan gazterik ikasketak egitera, eta amaitu ebazanean Erroma'n gotzain sagaratua izan zan.

Aita Santuak Baiona'ko gotzain izentatu eban, eta Pirineo menditako bi aldetan —Baskonia'ko euskal lurraldetan— Kristoren Ebanjelioa zabaltzen aalegin andiak egin ebazan, baita euskaldun asko bateatu be.

Normandar itsas-gizonak Baiona'ko uria arrapatu ebenean Leon gotzaina, burua moztuta, il egin eben.

Bere gorpua Baiona'ko katedralean zaintzen da.

Epailak 3

EMETERIO ETA ZELEDONIO MARTIRI DEUNAK

Irugarren gizaldian, Kalagorri'n, Diokleziano, Erroma'ko enperadorearen goi-maillako gudariak ziran.

Enperadorea Jaungoikotzat artu, eta gurtu gura ez ebelako, bere bizitzaz ordaindu eben Jaungoiko Bakarrean sinistea.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'ko zati andi bat Kalagorri'ko eleiz-barrutiko ziranean, martiri bi oneik izan ziran gure lurraldeetako zaindari.

Emendik dator Euskalerrian martiri bi onein ospez eragıtako ainbat baseliza, eta euren izena euskal liturjian sartzea.

Epailak 8

IRATXE'KO BEREMUNDO ABATA DEUNA

Naparroan jaio zan 1,020 urte inguruan. Gazte zalarik Iratxe'ko monastegian lekaide sartu zan, eta bertako Abata Nagusia izan zan 40 urtetan.

Bere pozik andiena gaisoai laguntzea izaten zan, eta gosetuai jaten emotea. Naparroa'ko Erregeen aolkulari edo kontseillari izan zan.

Santu-ospe andikoa il zan 1,090 urtean.

Beremundo Deunaren azurrak dituen kutxatilla, aldizka, bost urtetik bost urtera, Billatuerta'tik Arellano'ra, eta alderantziz, aldatzen dabe, Naparroa'ko erri bi oneik, bada, bakotxak beretzak eskatzen dabe santu onen jaioterri izatea.

Epailak 15

FITERO'KO RAIMUNDO ABATA DEUNA

Santu au Tarazona'n jaio zan, Euskalerriko mugan.

Leenengoz kanonigo izan zan, baiña laster Zister ordeneko jantzia artu eban, «Scala Dei» izeneko lekaidetxean, Frantzia'ko Tarbes errian.

Tarazona'ko eleiz-barrutira itzulita Fitero'ko lekaidetxea sortu eban, Nafarroa'ko ego-aldean, 1.152 urtean.

Eugenio Irugarren Aita Santuak, deituta, Erroma'ra joan-etorria egin eban bere Ordenako Billera Nagusian esku-artzeko.

1.158 urtean Kalatraba izeneko militar ordena berak sortu eban, Zister ordeneko legepean. Andik bost urte barru Toledo'ko erritxo baten il zan, eta orregatik orain bere azurrak Toledo'ko katedralen zaintzen dira.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI